



AUDIOLIBURUA AUDIOLIBRO

03

DEFINIZIOA Zer da?

Liburu baten edukien ozeneko grabazioa da. Edukia irakurria edo dramatizatua izan daiteke. Soinu-egokitzen hori ordenagailuz sor daiteke, edo norbaitek irakur dezake (eskuarki, aktoreek irakurtzen dituzte, eta, batzuetan, egileek beraiek). Soinu-efektuak eta musika ere txerta daitezke.

Garai batean formatu analogikoak erabiltzen ziren, zintak edo biniloak, esaterako. Gaur egun, berriz, formatu digitalak nagusitu dira. Askotariko formatuetan banatu ohi da: CD euskarrian, kasete-zintetan, DVDan eta formatu digitaletan. Azken horien artean, hona hemen ohikoenak: MP3a —soinu ugari metatu eta ordenagailuan erreproduzitzeko aukera ematen du—, iPod-a, Palm-a, sakelako telefonoa, etab. (Formatu hauek ere erabiltzen dira: DAISY, Ogg Vorbis).

Itsuak edo ikusmen-arazoak dituzten pertsonak irakurketan sartzeko alternatiba gisa sortu zen arren, gaur egun audioliburuaren erabilera beste eremu batzuetara zabaldu da, hala nola hezkuntza-eremura. Era berean, hainbat helburutarako erabiltzen da, hala nola testu batez ahoz gozatzeko.

Audioliburuak hainbat formatutakoak izan daitezke:

Euskarriaren arabera: grabazioak hainbat sistematan egin daitezke (soinu analogikoa eta soinu digitala).

Soinu motaren arabera: giza ahotsaz edo ahots errealez egindako audioliburua (pertsona batek egiten du kontakizuna), audioliburu dramatizatua (hainbat kontalari eta musikaz, soinu-efektuez, etab.; adibidez, haurrentzako ipuinak), eta ahots sintetiko egindako audioliburua (ordenagailu-programa batek sortua).

Obraren tratamenduaren arabera (kontaketa):

Abridged edo laburtuak (istorio laburtua)

Unabridged edo osoak (testu osoa)

<http://es.wikipedia.org/wiki/Audiolibro>

DEFINICIÓN ¿Qué es?

Es la grabación de los contenidos de un libro, leído o dramatizado, en voz alta. Esta adaptación sonora puede ser generada por ordenadores, o puede ser leída por personas (con frecuencia por actores, y en algunos casos, por los mismos autores). Incluso es posible incorporar efectos de sonido y música.

Antiguamente se utilizaban formatos analógicos, como cintas o vinilos; actualmente se imponen los formatos digitales. Normalmente se distribuye en soporte de CD, cintas de casete, DVD o en formatos digitales, como el MP3 que permite una importante acumulación de sonido y reproducirlo en el ordenador, iPod, Palm, teléfono móvil... (También, en formatos: DAISY, Ogg Vorbis).

Si bien surgió como una alternativa de acceso a la lectura para personas invidentes o con problemas visuales, actualmente se ha extendido su uso a otros ámbitos, como el educativo, y para distintos fines, por ejemplo para disfrutar un texto en forma oral.

Existen diferentes **formatos de audiolibros**:

Por soporte: hay grabaciones en diferentes sistemas (sonido analógico y sonido digital).

Por tipo de sonido: audiolibro con voz real o humana (narrados por una persona), audiolibro dramatizado (varios narradores, con música, con efectos de sonido..., por ejemplo, los cuentos para niños), y audiolibro con voz sintética (generado por programa del ordenador).

Por el tratamiento de la obra (relato):

- *Abridged* o abreviados (historia resumida)

- *Unabridged* o íntegros (texto completo)

<http://es.wikipedia.org/wiki/Audiolibro>

BALIABIDEAREN ERABILERA Nola erabiltzen da?

Sortzeko (grabazioa, zuzenketa eta edizioa...):

Egilea eta obra aukeratu ondoren, aukeratutako irakurketa grabatuko da, audioa grabatzeko programa bat erabiliz [[Info gehiago 41. fitxan](#)]. Grabazioa amaitu ondoren, entzun egin behar da, akatsak zuzentzeko.

Zuzendu ondoren, hondo-musika egokia aukera daiteke.

Ondoren, berriz editatu behar da [[Info gehiago 41. fitxan](#)] eta, azken emaitza gisa, audioko artxibo bat sortzen da.

Interpretazioa eta entzulea kontatzen den istorioan sartzea errazteko, ahoskera, intonazioa, erritmoa eta irakurtzeko abiada zaindu behar dira.

Entzuteko:

Audio-artxiboa ordenagailuan edo gailu mugikorrean behera kargatu eta ordenagailuan, MP3an, Palmean, Ipodean edo sakelako telefonoan soinua erreproduzitzeko instalatutako programaren bitartez erreproduzitzen da.

UTILIZACIÓN RECURSO ¿Cómo se usa?

Para crear (grabación, corrección y edición...):

Después de elegir autor y obra, se procede a grabar la lectura seleccionada utilizando un programa para grabar audio [[Más info en Ficha 41](#)]. Una vez terminada la grabación, se debe escuchar para la corrección y eliminación de errores. e

Después de corregido, se puede elegir la música de fondo adecuada.

Con ella se edita nuevamente [[Más info en Ficha 41](#)] y se crea un archivo de audio como resultado final.

Para facilitar la interpretación, y la inmersión del oyente en la historia relatada, es necesario cuidar la dicción, la entonación, el ritmo y la velocidad de lectura.

Para escuchar:

Se descarga el archivo de audio en el ordenador o dispositivo móvil y se reproduce a través del programa de reproducción de sonido instalado en el ordenador, MP3, Palm, Ipod o teléfono móvil.

**IKASGELARAKO
GOMENDIOAK**

Audioliburuaren aplikazio pedagogikoa garrantzitsua da bai HPBak dituzten ikasleentzat (itsuak edo ikusmen urrikoak), bai ikasle talde guztiarentzat; izan ere, kultura eskuratzea errazten du, literatura jendarteratzen laguntzen du eta ahozko mintzaira bidez irakurketaz gozatzea sustatzen du.

Era berean, atzerriko hizkuntzak ikasteko eta beste arlo batzuk ikasteko balio handiko baliabidea da.

Audioliburuaren sorkuntza ikaskuntza-jardueratzat edo zerbitzutzat har daiteke; izan ere, ikasleek, irakasleen orientabidearen laguntzaz, mailako edo eskolako audioteka osa dezakete. Partaidetzan, elkarrekiko laguntzan eta elkartasunean oinarritutako proposamen pedagogikoa da, premia zehatzei erantzutera bideratua dagoena eta eskuratutako jakintzak aplikatzea eta hizkuntza- nahiz teknologia-jardunak frogatzeko aukera ematen duena. Gomendagarria da audioliburuak sortzeko soinu- eta musika-baliabideak izatea. Horretarako, berriz, ikasleak sarbidea izango duen toki bat sortu behar da, bertan era horretako baliabideak gordetzeko.

**RECOMENDACIONES
PARA EL AULA**

Su aplicación pedagógica es importante no sólo para alumnos con NEE (invidentes o baja visión), sino para todo el grupo de alumnos, ya que facilita el acceso a la cultura, contribuye a la divulgación literaria y fomenta el placer de la lectura a través de la lengua oral.

También, es un recurso de gran valor para el aprendizaje de las lenguas extranjeras y para estudiar otras áreas.

La creación de audiolibros puede considerarse como una actividad de aprendizaje-servicio ya que los estudiantes, con la orientación de los docentes, pueden conformar una audioteca del curso o de la

escuela. Es una propuesta pedagógica fundada en la práctica participativa, colaborativa y solidaria, al servicio de necesidades concretas, aplicando los conocimientos adquiridos y demostrando desempeños lingüísticos y tecnológicos. Es recomendable disponer de recursos sonoros y musicales para la creación de audiolibros, lo cual implica crear un espacio accesible para el alumno donde ir depositando los recursos de este tipo.

**GOMENDATUTAKO
GUNEAK**
Non aurki dezaket?

Neska-mutilentzako irakurgaiak – Buenos Aireseko Audiobideotekako fonoteka

Obrak egileek irakurtzen dituzte

http://www.buenosaires.gov.ar/areas/com_social/audiovideoteca/

Mexikoko audioliburuak

Portal del Bicentenario – Ecos del grito bilduma

<http://audiolibros.bicentenario.gob.mx/>

Audiokontaketak:

Haur, nerabe eta helduentzat dira. Dena behera karga daiteke. Gainera, Ikastetxeentzako Nazioarteko Lehiaketa eskaintzen du, argitaletxeen laguntzaz. Facebook sare sozialean dago [Info gehiago 44. fitxan]

eta "Locuato Audiorrelato" izena du

<http://www.audiorelatos.net/>

Cervantes liburutegi birtuala

<http://www.cervantesvirtual.com/>

Ciudad Seva liburutegi digitala

<http://www.ciudadseva.com/bibcuent.htm>

Haur-kontaketa klasiko bat – Afrikako istorio bat

<http://paraeditor.audiorelatos.net/resources/Historia+africana+mix.mp3>

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?

Alba Learning - Audiolibros

<http://albalearning.com/>

Espainiako kontalari profesionala. Literatura-obra klasikoak eta hezkuntza-interes handiko haur-ipuinak biltzen ditu. Kontaketen testu idatzia biltzen du. Linean edo mp3 fitxategi bat behera kargatuta entzun daiteke. Gainera, ariketak eta hiztegia biltzen dituen blog bat dauka. <http://scratchblog.wordpress.com/>

Leer escuchando

<http://www.leerescuchando.net/>

Erabiltzaileek kontatutako audioliburuaren ataria. Behera karga doakoa da. Aldez aurretik erregistratuta, norberaren kontakizunak partekatzera gonbidatzen du.

Ivoox. AudioKioskoa

Podcastak argitaratzen dituen doako zerbitzua da. Audioliburu-entzuteko atal oso bat du. Komunitateko erabiltzaile guztiek dute audioliburuak behera kargatzeko edo beren audioliburuak hedatzeko aukera. http://www.ivoox.com/podcast-audiolibros-relatos_sc_f426_1.html

Audioliburuak eta audioipuinak dituzten webguneen direktorioa

http://www.ediciona.com/audiolibros_gratis-rec-c38.htm

Lecturas para chicos – Fonoteca de la Audio videoteca de Buenos Aires

Los propios autores leen sus obras

http://www.buenosaires.gov.ar/areas/com_social/audiovideoteca/

Audiolibros de México

Portal del Bicentenario – Colección Ecos del grito

<http://audiolibros.bicentenario.gob.mx/>

Audiorrelatos

Dirigidos al público infantil, adolescente y adulto. Todo se puede descargar. Además ofrece un Concurso Internacional para Colegios y Centro de Enseñanza, en colaboración con las editoriales. Está en la red social [Más info en Ficha 44]

Facebook, con el nombre de "Locuato Audiorrelato"

<http://www.audiorelatos.net/>

La Biblioteca Virtual Cervantes

<http://www.cervantesvirtual.com/>

Biblioteca Digital Ciudad Seva

<http://www.ciudadseva.com/bibcuent.htm>

Un relato infantil clásico- Una historia africana

<http://paraeditor.audiorelatos.net/resources/Historia+africana+mix.mp3>

Alba Learning - Audiolibros

<http://albalearning.com/>

Narradora profesional española que incluye clásicos de la literatura y cuentos infantiles de alto interés educativo. Incluye el texto escrito de las narraciones. Se puede escuchar en línea o descargar un fichero mp3. Mantiene además un blog con ejercicios y vocabulario. <http://scratchblog.wordpress.com/>

Leer escuchando

<http://www.leerescuchando.net/>

Portal de audiolibros narrados por los usuarios. La descarga es gratuita. Previo registro invita a compartir las narraciones propias.

Ivoox. AudioKiosco

Es un servicio de publicación de podcast gratuito que dedica todo un apartado a los audiolibros. Todos los usuarios de la comunidad pueden descargar o difundir sus audiolibros.



http://www.ivoox.com/podcast-audiolibros-relatos_sc_f426_1.html

Directorio de sitios con audiolibros o audiocuentos

http://www.ediciona.com/audiolibros_gratis-rec-c38.htm

